# Xedapen Orokorrak

## INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

**1881**

79/2010 DEKRETUA, martxoaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoan zenbait baldintza aplikatzeari buruzkoa.

Kontseiluaren 1259/1999 (EE) Erregelamenduak nekazaritza-praktiketan ingurumenari buruzko eskakizun jakin batzuk bete behar zirela ezarri zuen eta NPBren zuzeneko laguntzak ordaintzea eskakizun horiek betetzearen baldintzapean jarri zuen lehen aldiz. Aurrerago, Kontseiluaren 2003ko irailaren 29ko 1782/2003 Erregelamenduak sakondu zuen hori guztia. Kontseiluaren 2009ko urtarrilaren 19ko 73/2009 (EE) Erregelamenduak aldatu eta ordeztu zuen azken erregelamendu hori; nekazaritza-politika bateratuaren esparruan, nekazarientzako zuzeneko laguntza-erregimenei aplikagarriak zaizkien xedapen orokorrak eta laguntza-erregimen zehatzak ezarri zituen 73/2009 Erregelamenduak eta, halaber, zenbait erregelamendu aldatu zituen –hain zuzen, 1290/2005 (EE) Erregelamendua, 247/2006 (EE) Erregelamendua eta 378/2007 (EE) Erregelamendua– eta 1782/2003 (EE) Erregelamendua indargabetu.

Bestalde, Batzordearen 2009ko azaroaren 30eko 1122/2009 (EE) Erregelamenduaren bidez, 73/2009 (EE) Erregelamendua garatu da. Hala, 1122/2009 Erregelamenduaren bidez garapen-arauak ezartzen dira bi egimkizun hauetarako: batetik, 73/2009 Erregelamenduak ezarritako nekazarientzako zuzeneko laguntza-erregimenetan, baldintzak, modulazioa eta kudeaketa- eta kontrol-sistema integrala garatzeko, eta, bestetik, 1234/2007 (EE) Erregelamendua garatzeko, mahastigintzako sektorerako ezarritako laguntza-erregimeneko baldintzei dagokienez.

Europar Batasunaren arau horiek guztiak aplikatzeko, urtarrilaren 25eko 20/2005 Dekretua argitaratu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Politika Bateratuaren esparruan ematen diren zuzeneko laguntzei zenbait baldintza aplikatzeari buruzkoa. Apirilaren 11ko 82/2006 Dekretuak aldatu zuen dekretu hori, zenbait egokitzapen egin beharraren ondorioz. Hala ere, azken dekretu hori ere gainditura geratu da, Europar Batasuneko araudian izandako aldaketak direla-eta.

73/2009 Erregelamenduak ezartzen duenez, zuzeneko laguntzak jasotzen dituzten nekazari guztiek erregelamenduko II. eranskinean aipatzen diren kudeaketa-arloko legezko betekizunak bete beharko dituzte (oinarrizko arauak, osasun publikoari eta

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

**1881**

DECRETO 79/2010, de 2 de marzo, sobre la aplicación de la condicionalidad en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La obligación de cumplir unos determinados requisitos medioambientales en las prácticas agrarias y de condicionar el pago de las ayudas directas de la PAC a la observancia de dichos requisitos fue establecida por primera vez por el Reglamento (CE) 1259/1999 del Consejo, y profundizada por el Reglamento 1782/2003 del Consejo, de 29 de septiembre de 2003. Este último Reglamento ha sido modificado y sustituido por el Reglamento (CE) n.º 73/2009 del Consejo, de 19 de enero de 2009, por el que se establecen disposiciones comunes aplicables a los regímenes de ayudas directas a los agricultores en el marco de la política agrícola común y se instauran determinados regímenes de ayuda a los agricultores y por el que se modifican los Reglamentos (CE) n.º 1290/2005, (CE) n.º 247/2006, (CE) n.º 378/2007 y se deroga el Reglamento (CE) n.º 1782/2003).

El Reglamento (CE) n.º 73/2009 ha sido desarrollado por el Reglamento (CE) n.º 1122/2009 de la Comisión, de 30 de noviembre de 2009, por el que se establecen las normas de desarrollo en lo referido a la condicionalidad, la modulación y el sistema integrado de gestión y control en los regímenes de ayuda directa a los agricultores establecidos por ese Reglamento, y normas de desarrollo del Reglamento (CE) n.º 1234/2007 en lo referido a la condicionalidad en el régimen de ayuda establecido para el sector vitivinícola.

Para la aplicación de esta normativa comunitaria se publicó el Decreto 20/2005, de 25 de enero, sobre la aplicación de la condicionalidad en relación con las ayudas directas en el marco de la Política Agraria Común en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Este Decreto fue modificado por el Decreto 82/2006, de 11 de abril como consecuencia de la necesidad de realizar diversas adaptaciones. Sin embargo, este Decreto ha quedado superado por todas las modificaciones operadas en la reglamentación comunitaria.

El Reglamento 73/2009 dispone que todo agricultor que reciba pagos directos deberá observar los requisitos legales de gestión a los que se refiere su anexo II (normas básicas en materia de salud pública, zoosanidad y fitosanidad; de medio ambiente; y bien-

animalien eta landareen osasunari, ingurumenari eta animalien ongizateari buruzkoak). Orobat, III. eranskinean aipatzen diren nekazaritza- eta ingurumen-baldintza egokiak ere bete beharko dituzte. Betekizun eta baldintza horiek bete ezean, laguntzak txikiagotu egingo dira eta, batzuetan, baita kendu ere. Bestalde, agintari eskudunak bete behar diren legezko kudeaketa-betekizunen eta nekazaritza- eta ingurumen-baldintza egokien zerrenda eman behar die nekazariei.

Kontseiluaren 2005eko irailaren 20ko 1698/2005 (EE) Erregelamenduak, landa-garapenera bideratutako laguntzari buruzkoak, ezartzen duenez, erregelamendu horretan ezarritako laguntzen onuradunek ustiategi osoan bete beharko dituzte, laguntza zuzenen onuradunek betetzen dituzten legezko kudeaketa-betekizun berberak eta nekazaritza- eta ingurumen-baldintza egoki berak (Kontseiluaren 2009ko urtarrilaren 19ko 74/2009 (EE) Erregelamenduak aldatu zuen erregelamendu hori). Landa-garapenerako neurriei dagokienez, baldintzak betetzen direla kontrolatzeko prozeduran aplikatzen diren xedapenak Batzordearen 2006ko abenduaren 7ko 1975/2006 (EE) Erregelamenduan jaso ziren (Batzordearen 2009ko ekainaren 9ko 484/2009 (EE) Erregelamenduak aldatu zuen erregelamendu hori).

Halaber, Kontseiluaren 2008ko apirilaren 29ko 479/2008 (EE) Erregelamenduak, mahastigintzako merkatuaren antolamendu bateratua ezartzen duenak, honako hau xedatzen du: mahastiak berregituratu eta birmoldatzeko eta mahastiak erauzteko primaren aldeko laguntza-programen bidez laguntzak jasotzen dituzten nekazariek errespetatu behar dituzte legezko kudeaketa-betekizunak eta nekazaritza- eta ingurumen-baldintza egokiak. Bestalde, MAB berri hori 1234/2007 (EE) Erregelamendura (MABetarako erregelamendu bakarrera) sartu da, hain zuzen ere 2009ko maiatzaren 25ean Kontseiluak emandako 491/2009 (EE) Erregelamenduaren bitartez, eta hartarako, 1234/2009 (EE) Erregelamendua aldatu da, eta 479/2008 (EE) Erregelamendua indargabetu.

Azkenik, Estatuko Administrazio Orokorrak apirilaren 3ko 486/2009 Errege Dekretua argitaratu du; horren bidez, legezko kudeaketa-betekizunak eta nekazaritza- eta ingurumen-baldintza egokiak ezartzen dira. Hain zuzen ere, ondoko hauek bete beharko dituzte betekizun eta baldintza horiek: nekazaritza-politika bateratuaren eremuan zuzeneko laguntzak jasotzen dituzten nekazariek, landa-garapeneko zenbait laguntzen onuradunek eta mahastiak berregituratu eta birmoldatzeko eta mahastiak erauzteko primaren aldeko laguntza-programen bidez laguntzak jasotzen dituzten nekazariek.

Adierazitako horren guztiaren ondorioz, beharrezkoa da urtarrilaren 25eko 20/2005 Dekretua indargabetu eta ordeztea, hain zuzen ere, honako hauetara egokitu dadin: Europako Erkidegoko araudi berrira, Estatuko Administrazio Orokorrak ezarritako espa-

estar de los animales) y las buenas condiciones agrarias y medioambientales sobre la base del marco establecido en su anexo III. En caso de no observar esos requisitos y condiciones las ayudas serán disminuidas e incluso suprimidas. La autoridad competente debe proporcionar a los agricultores la lista de los requisitos legales de gestión y de las buenas condiciones agrarias y medioambientales que deberán cumplir.

El Reglamento (CE) n.º 1698/2005, del Consejo de 20 de septiembre de 2005, relativo a la ayuda al desarrollo rural (modificado por el Reglamento (CE) 74/2009, del Consejo de 19 de enero de 2009) establece que los determinadas ayudas previstas en dicho reglamento deberán cumplir en toda su explotación los mismos requisitos legales de gestión y las buenas condiciones agrarias y medioambientales que los beneficiarios de las ayudas directas. Las disposiciones de aplicación en lo que respecta a los procedimientos de control de la condicionalidad en relación con las medidas de desarrollo rural han sido establecidas por el Reglamento (CE) 1975/2006 de la Comisión, de 7 de diciembre de 2006 (modificado por el Reglamento (CE) 484/2009 de la Comisión, de 9 de junio de 2009).

Asimismo, el Reglamento (CE) n.º 479/2008, del Consejo de 29 de abril de 2008, por el que se establece la organización común del mercado vitivinícola, dispone que los agricultores que reciban ayudas en virtud de los programas de apoyo a la reestructuración y reconversión y a la prima por arranque de viñedo deberán respetar los requisitos legales de gestión y las buenas condiciones agrarias y medioambientales. A su vez, esta nueva OCM ha sido incorporada al Reglamento (CE) n.º 1234/2007 (Reglamento único para las OCM) por medio del Reglamento (CE) n.º 491/2009 del Consejo de 25 de mayo de 2009, para lo cual ha modificado el Reglamento (CE) n.º 1234/2009 y ha derogado el Reglamento (CE) n.º 479/2008.

Por último, la Administración General del Estado ha publicado el Real Decreto 486/2009, de 3 de abril, que establece los requisitos legales de gestión y las buenas condiciones agrarias y medioambientales que deben cumplir los agricultores que reciban pagos directos en el marco de la política agraria común, los beneficiarios de determinadas ayudas de desarrollo rural y los agricultores que reciban ayudas en virtud de los programas de apoyo a la reestructuración y reconversión y a la prima por arranque de viñedo.

Todo lo anterior, determina la necesidad de derogar y sustituir el Decreto 20/2005, de 25 de enero, para adaptarlo a la nueva reglamentación comunitaria, al marco establecido por la Administración General del Estado y a la necesidad de introducir mejoras

rrura eta hobekuntza teknikoak egiteko eta, baldintzak aplikatzean, azken urteetan atzemandako akatsak zuzentzeko beharrizanera.

Dekretu hau prestatzerakoan aholkua eskatu zaie Euskal Herriko Ingurumen Batzordeari, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-aldundiei eta lanbide-elkargoei.

Ondorioz, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren proposamenez, Aholku Batzorde Juridikoarekin bat, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2010eko martxoaren 2an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

***1. artikulua.***– Helburua.

1.– Dekretu honen helburua nekazaritza- eta ingurumen-baldintza egokiak definitzea da Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan. Baldintza horiek, honako hauek bete beharrekoak izango izango dira: nekazaritza-politika bateratuaren esparruan zuzeneko laguntzak jasotzen dituztenek, landa-garapeneko zenbait laguntzen onuradunek eta mahastiak berregituratu eta birmoldatzeko eta mahastiak erauzteko primaren aldeko laguntza-programen onuradunek.

2.– Era berean, dekretu honetan azalpen modura zerrendatuko dira, Europako Erkidegoko araudiak «kudeaketako legezko baldintzak» esapidearen bidez zehazten dituen oinarrizko arau orokorrak; hain zuzen ere, Kontseiluaren 2009ko urtarrilaren 19ko 73/2009 (EE) Erregelamenduaren II. eranskinean jasotzen dira arau horiek.

***2. artikulua.***– Aplikazio-eremua.

1.– Dekretu hau nekazaritza-ustiategiei aplikatuko zaie, baldin eta laguntza hauetakoren bat jasotzen badute:

A) Zuzeneko laguntzak, 73/2009 (EE) Erregelamenduaren I. eranskinean ezarritakoaren arabera.

B) Kontseiluaren irailaren 20ko 1698/2005 (EE) Erregelamenduaren 36. artikuluko a) idatz-zatiko i) eta v) arteko tartekaduretan eta b) idatz-zatiko i), iv) eta v) tartekaduretan aurreikusitako laguntza hauek:

1.– Nekazal-lurren erabilera jasangarriaren aldeko neurriak:

– Mendi-inguruetan dauden zailtasun naturalak direla-eta, kalte-ordainak ematera bideratutako laguntzak.

– Mendikoak ez diren eremuetan dauden zailtasunak direla-eta, kalte-ordainak ematera bideratutako laguntzak.

– «Natura 2000» laguntzak eta 2000/60/EE Zuzentarauarekin lotutako laguntzak.

– Nekazaritza eta ingurumeneko laguntzak.

técnicas y corregir las deficiencias puestas de manifiesto en la aplicación de la condicionalidad en estos últimos años.

La Comisión Ambiental de Euskadi, las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, así como las organizaciones profesionales han sido consultadas en la elaboración del presente Decreto.

En su virtud, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, a propuesta de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 2 de marzo de 2010,

DISPONGO:

***Artículo 1.***– Objeto.

1.– El presente Decreto tiene por objeto definir, en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, las buenas condiciones agrarias y medioambientales que deben cumplir las personas receptoras de pagos directos en el marco de la política agrícola común, de determinadas ayudas de desarrollo rural y de ayudas en virtud de los programas de apoyo a la reestructuración y reconversión y a la prima por arranque de viñedo.

2.– Asimismo en el presente Decreto se relacionan, a título expositivo, las normas generales básicas a las que la reglamentación comunitaria se refiere con la expresión «requisitos legales de gestión» contemplados en el anexo II del Reglamento (CE) n.º 73/2009 del Consejo, de 19 de enero de 2009.

***Artículo 2.***– Ámbito de aplicación.

1.– El presente Decreto se aplicará a las explotaciones agrarias que reciban cualquiera de los siguientes pagos:

A) Pagos directos en virtud del anexo I del Reglamento (CE) n.º 73/2009.

B) Las siguientes ayudas previstas en los incisos i) a v) de la letra a) y en los incisos i), iv) y v) de la letra b) del artículo 36 del Reglamento (CE) n.º 1698/2005 del Consejo, de 20 de septiembre:

1.– Medidas destinadas a la utilización sostenible de tierras agrícolas:

– Ayudas destinadas a indemnizaciones por las dificultadas naturales en zonas de montaña.

– Ayudas destinadas a indemnizaciones por las dificultadas en zonas distintas de las de montaña.

– Ayudas «Natura 2000» y ayudas relacionadas con la Directiva 2000/60/CE.

– Ayudas agroambientales.

– Abereen ongizaterako laguntzak.

2.– Baso-lurren erabilera jasangarriaren aldeko neurriak:

– Nekazaritza-lurren lehenengo baso-sartzerako laguntzak.

– «Natura 2000» laguntzak.

– Baso-inguruaren aldeko laguntzak.

C) 479/2008 (EE) Erregelamenduko 20. eta 103. artikuluetan jasotzen diren laguntzak.

– Mahastiak berregituratu eta birmoldatzeko programetan jasotako laguntzak.

– Mahastiak erauzteko primak.

2.– Dekretu honetan ezarritako nekazaritza- eta ingurumen-baldintza egokiak, artikulu honetako 1. puntuan zehaztutako laguntzetako edozein jasotzen duen nekazaritza-ustiategi osoan bete beharko dira; alde horretatik, ez da kontuan hartuko ustiategian dauden partzelek edo instalazioek laguntzarik jaso dezaketen edo ezin dezaketen, laborantzarako edo abelazkuntzarako erabiltzen diren edo Euskal Autonomia Erkidegoan osorik edo zati batean dauden.

3.– Artikulu honetako 1.c puntuan adierazitako laguntzen onuradunek laguntza jaso eta hurrengo hiru urteetan bete beharko dituzte dekretu honetan zehaztutako legezko kudeaketa-betekizunak eta nekazaritza- eta ingurumen-baldintza egokiak.

***3. artikulua.***– Definizioak.

Aplikatzekoak izango dira 73/2009 (EE) Erregelamenduan eta 1122/2009 (EE) Erregelamenduan bildutako definizioak, bai eta ondoko hauek ere:

a) Lurra lantzea: laborantza-lurra irauli, tresna mekanikoen bidez.

b) NPGIS barrutia edo barrutia: Nekazaritzako Partzelei buruzko Geografia Informazioko Sistemaren arabera nekazaritzako erabilera bakarra duen partzelan kokatzen diren ondoz ondoko azaleretako bakoitza.

c) Aldapa: lurraren batez besteko inklinazioa da. NPGIS barrutian kalkulatzen da, goraguneen eredu digitalarekin. Eredu hori puntu distantziakidezko sarean oinarritzen da, eta puntu horien arteko aldea gehienez 20 metrokoa da, eta zehaztasuna, 1:10.000 kartografiaren antzekoa.

d) Lur urasetua: zoruaren poro guztiak urez beteta daudenean urasetuta dagoela esaten da.

e) Eusteko terrazak: harri lehorreko baratze-mailak; belarra, zuhaixkak edo zuhaitzak dituzten ezpondak; terrazak eta lubakiak, nibeleko laborantzaren kasuan; eta landare-barrera biziak, maldarekiko perpendikularrak, isurketak kontrolatuz lurra higaduratik babesten dutenak.

– Ayudas relativas al bienestar de los animales.

2.– Medidas destinadas a la utilización sostenible de tierras forestales:

– Ayudas a la primera forestación de tierras agrícolas.

– Ayudas «Natura 2000».

– Ayudas a favor del medio forestal.

C) Ayudas incluidas en los artículos 20 y 103 del Reglamento (CE) n.º 479/2008:

– Ayudas incluidas en los programas de apoyo a la reestructuración y reconversión de viñedo.

– Pagos de primas por arranque de viñedo.

2.– Las buenas condiciones agrarias y medioambientales previstas en el presente Decreto deberán ser observadas en la totalidad de la explotación agraria que reciba cualquiera de las ayudas especificadas en el punto 1 del presente artículo; con independencia de que las parcelas o instalaciones de que consta la explotación sean dedicadas a cultivos o a la cría de animales que tengan derecho a ayuda o no y estén ubicadas en todo o en parte en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

3.– Los beneficiarios de las ayudas especificadas en el punto 1.c del presente artículo, deberán respetar durante los tres años siguientes al pago de la ayuda los requisitos legales de gestión y las buenas condiciones agrarias y medioambientales que se detallan en el presente Decreto.

***Artículo 3.***– Definiciones.

Serán de aplicación las definiciones contenidas en el Reglamento (CE) n.º 73/2009 y en el Reglamento (CE) n.º 1122/2009, así como las siguientes:

a) Labrar la tierra: remover el terreno de cultivo, mediante implementos mecánicos.

b) Recinto SIGPAC o recinto: cada una de las superficies continuas dentro de una parcela con uso agrícola único de los definidos dentro del sistema de información geográfica de parcelas agrícolas (SIGPAC).

c) Pendiente: la inclinación media del terreno calculada en un recinto SIGPAC a partir de un modelo digital de elevaciones, compuesto por una malla de puntos con una equidistancia entre éstos de un máximo de 20 metros y una precisión similar a la de la cartografía 1:10.000.

d) Suelo saturado: es aquel en el que todos sus poros están llenos de agua.

e) Terrazas de retención: los bancales de piedra seca, los ribazos provistos de vegetación herbácea, arbustiva o arbórea; las terrazas y zanjas de contorno en el caso de laboreo a nivel y las barreras vivas vegetales perpendiculares a la pendiente que, mediante el control de las escorrentías, protegen el suelo de la erosión.

f) Benetako abere-zama: azienda (ALU Azienda Larri Unitatetan), bazka-azaleraren hektarea bakoitzean, nagusiki baliabide natural propioen bidez mantentzen dena. ALUen baliokidetasunak, abelburuko eta espezieko, uztailaren 6ko 141/2004 Dekretuan edo hori aldatu edo ordezkatzen duen araudian ezarritakoak dira (141/2004 Dekretua, abeltzaintzako ustiategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituena).

g) Berezko landaretza desegokia: zenbait landare-espezie dira, eta epe ertainera eta luzera nekazaritzako lurren ekoizpen-ahalmena arriskuan jarri ezin dezaketen arren, ugaritu egin daitezke eta, ondorioz, finka edo alor landu jakin batean nekazaritzaren eta ekologiaren arteko oreka hautsi eta inguruko soro landuetan eragin.

h) Egiturazko elementuak: euren ezaugarriak direla-eta, eginkizun nabariak dituzten osagaiak dira, hain zuzen, ekoizpen-ahalmena mantentzeko eta animaliak, landareak eta nekazaritza-jarduerari lotutako paisaia zaintzeko. Dekretu honi dagokionez, honako hauek izango dira egiturazko elementuak:

h.1.– Partzela-ertzak: mugakideak eta ezpondak. Partzelako mugakide eta ezpondei lotutako landareak sartzen dira definizio honetan, salbu eta berezko landare-espezie desegokitzat hartzen direnak. Ezponda da goragune edo malda duen lur-zatia edo mendoitz itxurakoa, maila desberdinetan dauden landutako bi lursail bereizten dituena.

h.2.– Eusteko terraza: lur-sail lauetako bakoitza, maila moduan jarrita, lur aldapatsu baten hegian

h.3.– Landaretza-uharteak: landaretza naturaleko inguruak, bata bestetik isolatuta daudenak; landutako lurrez inguratuta daudenez, bertan bizi diren espezien mugimenduak, harremanak eta garapena oztopatu egiten dira.

h.4.– Harkaitzak: haitzak edo haitz-multzoak, planoa horizontalaren gainean proiektatutako gutxieneko azalera 5 m$^2$-koa dutenak; hartara, fauna basatiaren kontserbazioa errazten dute.

h.5.– Ibaiertzeko heskaiak edo basoak, partzelaren barruan daudenak.

h.6.– Idoi, aintzira, urmael eta uraska naturalak.

h.7.– Lerroko hesi-arbolak eta multzo-arbolak edo babestuak.

h.8.– Eraikin txikiak, hala nola, harri lehorreko hormatxoak, bordak edo arkitektura tradizionaleko bestelako elementuak.

i) Lurrak fintzea: baratze-mailetako eta lur ureztatuetako lurrazala egokitzeko lanak dira; grabitate-, azalera- eta uholde-bidezko ureztatze-metodoak erabiltzen diren laborantza-partzeletan egiten dira lanok,

f) Carga ganadera efectiva: el ganado, calculado en unidades de ganado mayor (UGM), que, por hectárea de superficie forrajera, se mantiene principalmente a base de recursos naturales propios. Las equivalencias en UGM por cabeza y especie, son las que se establecen en el Decreto 141/2004, de 6 de julio, por el que se establecen las normas técnicas, higiénico-sanitarias y medioambientales de las explotaciones ganaderas; o normativa que lo modifique o sustituya.

g) Vegetación espontánea no deseada: aquellas especies vegetales que, aunque no pongan en riesgo la capacidad productiva de los suelos agrícolas a medio y largo plazo, amenacen con su proliferación, con romper el equilibrio agro ecológico de una finca o zona de cultivo determinada y con afectar por extensión a los campos de cultivo circundantes.

h) Elemento estructural: aquellos componentes de la parcela que por sus características cumplen funciones relevantes para mantener su potencial productivo y para conservar la fauna, flora y el paisaje asociado al ejercicio de la actividad agraria. A efectos del presente Decreto, se considerarán elementos estructurales los siguientes:

h.1.– Márgenes de parcelas: lindes y ribazos. Se incluye en esta definición toda vegetación asociada a lindes y ribazos de la parcela, salvo las consideradas especies de vegetación espontánea no deseada. Se entenderá por ribazo a la porción de tierra con elevación o declive o en forma de talud que separa dos terrenos de cultivo que están a distinto nivel.

h.2.– Terraza de retención: cada uno de los espacios de terreno llano, dispuestos en forma de escalones en la ladera de un terreno con pendiente.

h.3.– Islas de vegetación: zonas de vegetación natural, aisladas de otras y que al encontrarse rodeadas de cultivos, se ven dificultados los movimientos, las relaciones y el desarrollo de las especies que viven en ellas.

h.4.– Roquedos: roca o conjunto de rocas con una superficie mínima proyectada sobre el plano horizontal del 5 m$^2$ que favorezcan la conservación de la fauna silvestre.

h.5.– Setos o bosques de ribera, que se encuentren en el interior de la parcela.

h.6.– Charcas, lagunas, estanques y abrevaderos naturales.

h.7.– Árboles de barrera en línea y árboles en grupo o asilados.

h.8.– Pequeñas construcciones como muretes de piedra seca, bordas u otros elementos de arquitectura tradicional.

i) Refinado de tierras: aquellas operaciones de acondicionamiento de la superficie del suelo de los bancales y tierras de regadío, destinadas a mejorar la eficiencia del uso del agua y facilitar la práctica del

hain zuzen ere, ur-erabileraren eraginkortasuna hobetu eta ureztatze-jarduera errazteko.

j) Higadura-arrisku handia duten eremuak: Euskal Autonomia Erkidegoko Lorzoruen Higadura Maparen arabera (azaleko higadura hidrikoa), honela sailkatzen dira eremu horiek: higadura-prozesu larrikoak, oso larrikoak edo muturrekoak. Aipatutako mapa Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak landutakoa da.

***4. artikulua.***– Betebeharrak.

1.– Dekretu honetako 2. artikuluan aipatzen diren onuradunek dekretuaren I. eranskinean adierazten diren nekazaritza- eta ingurumen-baldintza egokiak bete behar dituzte.

2.– Orobat, dekretu honen II. eranskinean zehaztutako legezko kudeaketa-betekizunak konplitu beharko dituzte.

3.– Aurreko bi paragrafoetan adierazitako betekizunez gain, Kontseiluaren irailaren 20ko 1698/2005 (EE) Erregelamenduaren 36. artikuluaren a) idatzzatiko iv) tartekaduran ezarritako laguntzen onuradunek, ongarriak eta produktu fitosanitarioak erabiltzeko gutxieneko betekizunak konplitu beharko dituzte, zehazki, honako hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenaren Programan (2007-2013) jasotako eta uztailaren 8ko 133/2008 Dekretuan eta foru-aldundietako garapen-araudian ezarritako betekizunak. (133/2008 Dekretua, Nekazaritzarako egiturazko eta ingurumeneko laguntzei buruzkoa).

***5. artikulua.***– Larre iraunkorrak.

Larre iraunkorren titularrek Europako Erkidegoko arauak bete beharko dituzte, bai eta, halakorik izanez gero, Euskal Autonomia Erkidegokoa arauak ere; arau horien helburua da larre iraunkorren azalera guztizkoaren murrizketa nabarmenari aurre egitea, betiere, 73/2009 (EE) Erregelamenduaren 6. artikuluan eta 1122/2009 (EE) Erregelamenduaren 4. artikuluan ezarritakoaren arabera; artikulu horietan zehazten dira urtean onartu daitezkeen murrizketa-tarteak, erreferentziazko proportzioa kontuan hartuta.

Estatuan, tarte horiek gainditzen baldin badira, Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak, foru-aldundietako organo eskudunekin elkarlanean, norbanakoek konplitu beharreko betekizunak ezarriko ditu, betiere, 1122/2009 (EE) Erregelamenduko 4. artikuluan xedatutakoaren arabera.

***6. artikulua.***– Agintaritza eskudunak eta administrazioarekiko harremanak.

1.– Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza arduratuko da dekretu honen aplikazioaz, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-

riego, realizadas sobre parcelas de cultivo en las que se utilizan métodos de riego por gravedad, por superficie e inundación.

j) Zonas con elevado riesgo de erosión: aquellas clasificadas como zonas con procesos erosivos graves, muy graves o extremos según el Mapa de Erosión de Suelos de Euskadi (erosión hídrica superficial), realizado por el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.

***Artículo 4.***– Obligaciones de la condicionalidad.

1.– Todas las personas beneficiarias a que se refiere el artículo 2, deberán cumplir las buenas condiciones agrarias y medioambientales descritas en el anexo I del presente Decreto.

2.– Asimismo, deberán observar los requisitos legales de gestión especificados en el anexo II del presente Decreto.

3.– Además de los requisitos a que se refieren los dos apartados anteriores, las personas beneficiarias de las ayudas agroambientales, previstas en el artículo 36, letra a), inciso iv) del Reglamento (CE) n.º 1698/2005 del Consejo, de 20 de septiembre, deberán cumplir los requisitos mínimos de utilización de abonos y productos fitosanitarios recogidos en el Programa de Desarrollo Rural del País Vasco (2007-2013) y establecidos en el Decreto 133/2008, de 8 de julio, sobre ayudas estructurales y ambientales al sector agrario, y en la normativa de desarrollo de las Diputaciones Forales.

***Artículo 5.***– Pastos permanentes.

La persona titular de superficies dedicadas a pastos permanentes, se atendrá a las exigencias previstas en la normativa comunitaria; así como a las que se establezcan, en su caso, en la Comunidad Autónoma del País Vasco; al objeto de prevenir que la superficie total de pastos permanentes sufra una reducción significativa con arreglo a lo previsto en el artículo 6 del Reglamento (CE) n.º 73/2009 y en el artículo 4 del Reglamento (CE) n.º 1122/2009, en los que se recogen los márgenes anuales admisibles de reducción respecto a la proporción de referencia.

En caso de rebasamiento a nivel estatal de los citados márgenes, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 4 del Reglamento (CE) n.º 1122/2009, la Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco, en colaboración con los organismos competentes de las Diputaciones Forales, podrá establecer las obligaciones de carácter individual que sean necesarias.

***Artículo 6.***– Autoridades competentes y relaciones administrativas.

1.– La Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco, en cuanto que es el Organismo Pagador de los gastos correspondientes a la política

politika bateratuaren gastuak ordaintzen dituen erakundea den aldetik.

2.– Forua-aldundietan nekazaritza arloko eskumena duten sailak, zein bere lurraldean, izango dira Kontroleko Organo Espezializatuak, urriaren 3ko 194/2006 Dekretuan ezarritakoaren arabera (Euskal Autonomia Erkidegoko gastuen erakunde ordaintzailea eratzen du dekretu horrek) eta abenduaren 15eko 367/1998, 368/1998 eta 369/1998 Dekretuetan xedatutakoari jarraituz (dekretu horien bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Guztientzako Erakundeetatik Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoei, hurrenez hurren, eskualdatzen zaizkien egitekoak areagotzen dira; NBBEF-Bermea deritzonaren kargura finantzatutako zuzeneko diru-laguntzen kudeaketari dagozkio egiteko horiek).

3.– Murrizketen eta bazterketen kalkuluari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzailea izango da organo eskuduna.

4.– Dekretu honen aplikazioaren ondorioz herri-administrazioekin izan beharreko harremanetan, ahozko zein idatzizkoetan, pertsona fisikoei eta pertsona juridikoen ordezkariei euskara eta gaztelania erabiltzeko eta nahi duten hizkuntzan artatuak izateko eskubidea bermatuko zaie.

***7. artikulua.***– Kontrolak.

1.– Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak, agintaritza eskuduna den aldetik, baldintzak betetzen direla bermatzeko sistema ezarriko du, 1122/2009 (EE) Erregelamenduaren 8. artikuluan xedatutakoaren arabera. Nekazaritzaren Bermerako Espainiako Fondoak autonomia erkidegoen lankidetza duela sortutako estatuko kontrol-planari egokituko zaio EAEko kontrol-plana, eta aipatutako fondo horri emango zaio planaren berri.

2.– Kontrol administratiboak egingo dira, bereziki dagoeneko kontrol–sistemetan ezarrita daudenak; kontrol horiek kasuan kasuko betekizun, arau, egintza edo esparruaren gainean egingo dira, baldin eta horretarako metodo egokiak badaude, hala baitago ezarrita 1122/2009 (EE) Erregelamenduaren 49. artikuluan.

3.– Halaber, tokian bertan ere egingo dira kontrolak, hain zuzen ere, 1122/2009 (EE) Erregelamenduaren 50. artikulutik 52. artikulura bitartean ezarritako ehuneko eta baldintzen arabera.

4.– Laguntza-eskabideak aurkeztu diren urte zibil berean gauzatuko dira tokian bertan egitekoak diren kontrolak.

5.– Foru-aldundietako organo eskudunek egingo dituzte tokian bertan egin behar diren kontrolak, eta honako hauei egingo dizkiete: laguntza zuzenak jasotzeko eskabideak aurkeztu dituzten lagun guztien ehuneko bati, gutxienez; 1698/2005 (EE) Erregela-

agraria común en la Comunidad Autónoma del País Vasco, será la autoridad responsable de la aplicación del presente Decreto.

2.– Los Departamentos competentes en materia de agricultura de las Diputaciones Forales serán los Órganos de Control Especializados, cada uno dentro de su respectivo ámbito territorial, de conformidad con lo dispuesto en el Decreto 194/2006, de 3 de octubre, por el que se constituye el Organismo Pagador de la Comunidad Autónoma del País Vasco; y de conformidad asimismo con los dispuesto en los Decretos 367/1998; 368/1998 y 369/1998, de 15 de diciembre, de ampliación de funciones, correspondientes a la gestión de las ayudas directas financiadas con cargo al FEOGA-Garantía, que se traspasan de las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma del País Vasco a los Territorios Históricos de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa.

3.– La autoridad competente para el cálculo de las reducciones y exclusiones, será el Organismo Pagador de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

4.– Se garantizará el derecho de las personas físicas y de los representante de las personas jurídicas a utilizar el euskera y el castellano, y a ser atendido en la lengua elegida en las relaciones, tanto escritas como orales, con las administraciones públicas derivadas de la aplicación del presente Decreto.

***Artículo 7.***– Controles.

1.– La Dirección de Agricultura y Ganadería, como autoridad competente, establecerá el sistema para garantizar el cumplimiento efectivo de la condicionalidad, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 8 del Reglamento (CE) n.º 1122/2009. El Plan de Controles de la CAPV se ajustará al plan estatal de controles elaborado por el FEGA en colaboración con las Comunidades Autónomas y se comunicará a dicha entidad.

2.– Se realizarán controles administrativos, en particular los que ya se establezcan en los sistemas de control, aplicables al requisito, norma, acto o ámbito de aplicación de la condicionalidad respectivo, cuando existan los métodos adecuados para ello, tal y como establece el artículo 49 del Reglamento (CE) n.º 1122/2009.

3.– Se efectuarán, asimismo, controles sobre el terreno en los porcentajes y requisitos establecidos en los artículos 50 a 52 del Reglamento (CE) n.º 1122/2009.

4.– Los controles sobre el terreno se realizarán en el mismo año civil en que se presenten las solicitudes de ayuda.

5.– Los controles sobre el terreno los realizarán los órganos competentes de las Diputaciones Forales y se efectuarán en al menos el uno por ciento de la totalidad de las personas que presenten solicitudes de pagos directos; el uno por ciento como mínimo, de las

menduaren 36. artikuluaren a) idatz-zatiko i) eta v) arteko tartekaduretan eta b) idatz-zatiko i), iv) eta v) tartekaduretan aurreikusitako laguntzak jasotzeko eskabideak egiten dituzten lagunen ehuneko bati, gutxienez; mahastiak berregituratu eta birmoldatzeko programen laguntzak eskatu dituzten lagunen ehuneko bati; bai eta, 479/2008 (EE) Erregelamenduko 20. eta 103. artikuluetan ezarritakoaren arabera, mahastiak erauzteko primaren laguntza jasotzen duten lagunen ehuneko bati; eta, kasu guztietan, betekizun edo arau horietako edozein bete behar dutenei.

Kontroletan, gutxieneko ehuneko horiek lurralde historiko bakoitzean bete beharko dira.

Egintza eta arauei aplikagarria den legediak gutxieneko kontrol-ehunekoak finkatuta baldin baditu, ehuneko horiek aplikatuko dira lehenago aipatutakoen ordez.

6.– Tokian bertan egindako kontrol bakoitza kontrol-akta batean jasoko da, eta bertan, ikuskatzebisitari buruzko emaitza bilduko da. Akta horietan oinarrituta, kontrol guztiei buruzko txosten bat landuko dute foru-aldundiek; txosten hori Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzara bidaliko da, tokian bertan egindako kontrolak bukatu eta hilabeteko epean.

Halaber, ikuskatutako pertsona edo haren ordezkaria kontrolean egon ez badira, kasuan kasuko foru-aldundiak ez-betetze guztien berri emango die, tokian bertan egindako kontrolaren egunaren ondorengo hiru hilabeteko epean.

